

ASABA ZAHARREN BARATZA

"EKHIARI SO" Ebro ibaia eta Toloño mendikatearen artean hedatzen diren lurretan aspaldi bizi izan da gizakia. Horren lekuko dira orain lauzpabost mila urte gure asabek altxatu zituzten trikuharriak, Los Husos-eko leizea, Kristo aurretiko XV. mendean eraiki zuten La Hoya-ko hirixka, beranduago erromatarren presentziak lagatako galtzadak edota Erdi Aroan basilizen babesean arrokan zulatutako nekropoliak. Distantzian gertu baina denboran urruti. Ibilaldi honetan historian zehar eman ditugu urratsak, Historiaurretik Erdi Aroa, gure asabek beren hildakoak hilobiratzeko eraiki zituzten hilobi-monumentuen bila hain zuzen ere. Landu gabe zutik jarritako harrizko hilobietatik hareharritzko arrokan landutako hilobietara eta alderantziz. Beti ekhiari so.

REMELLURITIK BERBERANARA

Toloño mendiaren magalean, Rivas del Tereso herrira heldu aurretik dagoen Nuestra Señora de Remelluri granjaren sarreran eman diogu hasiera ibilaldi honi. Finkan sartu eta apenas lauhun metro bete ditugunean Erdi Erok *Santa Eulalia* nekropolira iritsi gara. X-XI-XII. gizaldietako hirurehun hilobi baino gehiago eta dolare bat hareharritzko arrokan landurik. Ikusgarria benetan. Errepidera itzuli eta kilometro bat eskas bete dugunean, hau utzi eta *Bardallo*ko sakanetik beherantz jarraitu dugu mahastien artean zabaltzen den bidean barna murgilduz. Kostata, baina azkenean, arte batzuen inguruan *Las Sepulturas* izenez ezaguna den ingurura heldu gara. Paraje honetan 70 bat hilobi aurkitu dituzte eta garai batean *Doroño* herria finkatu zen bertan.

Bide jakinik gabe, baina beti mendikatearen paraleloan, pista eroso batek *Valsecako* sakana igaro eta *San Vicente de la Sonsierratik* datorren errepidean utzi gaitu. Pista zabala jarraituz, El Portillar mendi-lepora ailegatzean, *Peciña* herria gertu ikusi dugu. XIV. mendeko herri zahar hau 700 metrora dagoen muino batean kokaturik dago, baina lehenago *Santa M^a de la Piscina* basilizaren inguruan zegoen, gaztelarrek lau aldiz setiatu ostean birrindu zuten arte. Herria atzean laga eta errepidetik beherantz, herri honen kokaleku zaharrena bila abiatu gara. Lehenago, mahatsondoez inguratutik *La Cascaja* trikuharria bisitatu dugu. Sei

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar 1957)

Elkar Fundazioko kudeatzailea da 1997. urtetik. Martin Ugalde Kultur Parkeko arduraduna izandakoa, egun Ikas-elkar argitaletxearen edizio-zuzendaria da. Aurretik 17 urtez irakasle izana da Olereta eta Zurriola ikastetxean. Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaika, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Bi liburu idatzi eta argitaratu ditu: "Aitona Blas eta iratxoak" (Elkar) haurrentzako ipuina eta "Rutas y paseos por Aiako Harria y Artikutza" (Sua).

harlauzek eratzen duten kutxa, korridorea eta estalki batez osaturik dago. Errepidera itzuli eta hemendik oso gertu dagoen *Santa M^a de la Piscina* basilizarantz abiatu gara. Harri eta zur geratu gara. Basilizaren edertasunaz gozatzen hasi garenerako honen ondoan dagoen nekropoliak gure atentzio osoa eskatu du. 53 hilobiz (49 hareharritzko arrokan landurik eta 4 basilizaren horman absidetik gertu) osatutako nekropolia, sakanera jaisten den mendi hegal leunean kokaturik. Hauen ondoan edukiera txikiko dolare bat eta bataiorako pizsina zirkularra.

Nekropoliaren ondotik ateratzen den pistan barna abiatu gara segidan. Bide jakinik gabe, mahatsondo ilaren artean mendi muinora igo gara berriro bide zahararekin bat egin arte. Beste aldean, dagoen mendixkan *San Felices* basiliza ikusi dugu baina lehenago *Abalos* herrira jaitsi gara. Kale estuen artean gorantz egin dugu *San Felices* basilizaren ondora heltzeko. Basiliza honen lehen berriak XI. gizaldikoak dira eta bere inguruan 11 hilobiz osaturiko nekropolia aurkitu dugu. Hegoaldeko hormaren ondoan hilotzak ehortzi aurretik garbitzeko erabiltzen zuten pizsina erritual zirkular baten ertza ikus daiteke. Lurrezko pistan barna, lepora jaitsi gara eta galdutako bideak bilatuz *El Cristo* basilizaren ondora heldu gara. Ermita zaharra, Herrera mendatetik gertu zegoen mendikatearen goialdean hain zuzen ere, baina 1731. urtean suntsitu eta 1796an kokagune berri honetan eraiki zuten, Samaniego herritik gertu.

Nekropolia



ERDI AROKO NEKROPOLIAK

Arabar Errioxan han-hemen barreiatutik aurki ditzakegu giza-itxura duten hilobiak. Gehienak X-XI-XII. gizaldi-koak dira eta ezaugarri bertsuak dituzte. Hareharritzko arrokan landuta eta harlauza astunez estalita, sortal-dera zuzendurik daude "ekhiari so". Kasik denak, monasterio edota basilizen inguruan daude eta maiz, hilobien artean arrokan zulatutako dolareak ikus daitezke. Ebro ibaia eta Toloño mendikatearen artean hedatzen diren lur hauetan nekropoli interesgarri batzuk bisita daitezke: Santa Eulalia Remellurin, Peciña herritik gertu Santa M^a de la Piscina, San Felices Abalosen, Berberana basilizaren ingurukoak, Kripango Los Casales eta Saurnil e.a.



Santa Maria de la Piscina basiliza eta nekropolia.

Aurrera egin dugu eta mendiaren magalean zehar bide zahar-
rak eta zidor galduak bilatzea erabaki dugu. Laster galdu dugu
arrastoa eta maiz ardi-bideek norabidea zuzentzen lagundu di-
gute. Bidea estaltzen duten ezkaia eta erromeroa zapalduz ai-
rea usai ederrez bete da eta bide bazterrean dauden kamamila
ale batzuk biltzeko tartetxo bat hartu dugu. Herrera mendatera
doan errepidera heldu eta 37. kilometrotik oso gertu harearrizko
zazpi harlauzez osaturiko *Layazako* trikuharria aurkitu dugu.
Atsedean laburra hartu eta errepidetik kilometro erdia bete du-
gunean, gure ezkerrera ikusi dugun pista zabala hartu dugu.
Berehala, bidegurutzte batean *Berberana* basilizarantz doan bi-
dea. Zereal lurren artean, XVIII. mende arte *Berberana* herriare-
na izandako elizaren ondora iritsi gara. XVI eta XVII. mendeetan
izandako izurriteak inguru hauek despopulatu zituen eta egun
1995ean berritzatutako basiliza erromanikoa eta giza itxurako
hilobi batzuk eratzen dira soilik.

BERBERANATIK KRIPANERA

Etorri garen bidetik itzuli eta Biasterira doan errepede nagusia
gurutzatu ostean, *El Sotillo* trikuharriaren ondora heldu gara. Hiru
metroko diametroa duen kutxa harearrizko bederatzi harlauzez
osaturik dago eta korridorea, berriz, lau harlauza eta horma-bu-
lar batez, denak estalkirik gabe. Toloño mendilerrotik urrutiratu
gara eta Guardia herria gertu dugu. Erremediorik gabe errepede
ondotik bete behar izan dugu hurrengo kilometro parean, justu
San Martin trikuharriaren ondora iritsi garen arte. Nahikoa ondo
kontserbatzen da eta oraindik korridorea osatzen duten bost har-
lauzen gainean bat estalita ikus daiteke.

Mahastien artean eta bide jakinik gabe, *La Hoya*-ko hirixka in-
guratzen duen hiru metroko harresiaren bila abiatu gara. Metal
aroko aztarnategi hau 1935ean aurkitu zuten, baina indusketak
ez ziren 1973. urte arte hasi. Hiru garai desberdinetako aztar-



Berberana basiliza

nak aurkitu dira bertan eta ziurrenik, hirixka populaturik zegoen garaian, Errioxako jendeak Arabako Mendialdekoekin eta Nafarroako sartaldekoekin harremanetan jartzen ziren. Indusketek agerian utzitako etxe eta kaleen aztarnak garai hartan hiriak nolako itxura zuen imajinatzen bultzatu gaitu.

Garai batean, ikazkinek Lagran herritik Biasterira jaisteko erabiltzen zuten bidera itzuli gara. *Toroko* mendaterantz doan pista hartu eta bidegurutzean eskuinera jo dugu, iparralderantz doan pista jarraituz. Kilometro bat pasatxo egin dugu bide honetatik, ezkerrera doan bidea utzi eta *El Gancho* izenez ezaguna den muinorantz abiatu gara. Bertan, *El Alto de la Huesera* trikuharria dago, Brontze-Aroko sei harlauzaz osaturiko poligonal barrutia. Aldamenean antzinako dolare ederra.

Atzera egin eta *Bilarera* doan pista jarraituz *Sorginen txabola* edo *La Cabaña de la Hechicera* izenez ezaguna den trikuharriaren ondora doan bidea hartu dugu. Monumentu megalitiko eder honen hilobi-aretoak kutxa bat eta korridorea ditu. Kutxak zortzi harlauza eta hiru zatitan banatutako estalkia ditu eta harlauza batek pasabidea bi zatitan banatzen du. Indusketetan aizkorak, esku-errotak, zeramika zatiak eta giza hezurak aurkitu zituzten. *Bilarera* jaitsi, herria zeharkatu eta errepidean bertan aurkituko dugu *El Encinal* trikuharria joateko jarraitu behar dugun bidea. Aparkaleku txiki baten ondoan artez inguraturik oso egoera kas-karrean dago, nahikoa utzita.

Zereal soroen artean Kripan aldera jo dugu eta berehala aurkitu ditugu erromatar galtzadaren aztarnak *Pilaseko* erreka aldera zuzenduz. Hau igaro eta garai batean galtzara izandakoa jarraituz, arte eta ipuruen artean Kripan herrira heldu gara *San Sebastian* basilizaren ondotik. Azken aztarnaren bila abiatu gara eta errepidetik *Bilar* aldera jaisten hasi eta berehala aurkitu dugu *Los Llanos* trikuharria igotzeko bide-seinalea. Harearrizko sei harlauza eta korridore batez osatutako monumentu megalitiko hau aurkitzen azkena izan zen 1982 urtean.

Gure ibilaldia amaitutzat eman dugu baina egunean zehar eza-gututako lekuen errepasoa egitean *Xabier Lizardiren Asaba zârren baratza* olerkiaren hurrengo ahapaldiak gogora ekarri ditugu:

**"Asaba zaharren baratza
huntzadun hormek hesia
eguzkiak lehen maite...
Hotzaldi zoro baten itzuli
joka nagokik atea."**

Ekhia sartaldean ezkutatu zaigu eta *Antton Valverdek* musika-tutako olerkia kantatuz etxerako bidea hartu dugu





Sorginaren txabola.

TRIKUHARRIAK

Arabar Errioxako Bastida eta Kripan herrien artean zortzi dira orain arte aurkitu diren trikuharriak, denak 600 metroko altueran kokaturik. Neolito kulturaren etorrerarekin batera hasi ziren hilobi mota hauek eraikitzen orain lauzpabost mila urte. Trikuharria landu gabeko harriz egina dagoen hilobi bat da. Lurrean zutik jarrita, lau edo alde gehiagok kutxa mugatzen dute eta gainean beste bat edo bi estalki gisa. Hilotzaren burua sartaldean eta oinak sortaldean jartzen zituzten, "ekhiari so". Kutxa, berriz, lurrez estaltzen zuten. Hego Euskal Herriko trikuharriak menditakoak baino askoz ere handiagoak dira. Horren adibide dira Peciña herritik gertu dagoen La Cascaja, Herrera mendatera daraman errepidearen ondoan dagoen Layaza, El Sotillo eta San Martin Guardiako bidean, Alto de la Huesera eta Sorginen Txabola edo La Chabola de la Hechicera Bilar herritik gertu, El Encinal Kripanerako bidean eta azkenik Los Llanos-ekoa. Horietatik sei Fernandez Medrano arkeologoak aurkitu zituen eta Aita Barandiaranekin batera induskatu.